


Astekaria

BARRE elgoi

Bizitzeko etxe bila



Aranburu

San Frantzisko 26 • Tel. 74 25 35 • ELGOIBAR

**GABONETAKO
ESKAINTZA
BEREZIA**

URREZKO BI ERLOJU zozketatuko ditugu
1.000 pta.ko gastuagatik zu ere zozketan sartuko zara.
Zozketa 1997eko urtarrilaren 5ean izango da dendan.



EITEK

Informatika

Paciano Arosa, 1
Tel-Fax: (943) 20 30 90
20600 EIBAR

Ordenagailu portatilak

Ordenagailuak

Inpresorak

Konponketa eta mantenua

INTERNET banatzailea

Neurrira egindako
software-a

ERAKUSKETA
IRAUNKORRA

PREVIEW monitorean
banatzaile bakarra



EPSON Stylus COLOR 200



EPSON Stylus COLOR 500

Promociones Inmobiliarias MENDARO



GOI MAILAKO KALITATEZKO
ETXEAK 12.000.000 pta.tik AURRERA

- 2 eta 3 logela
- Berogailu indibiduala
- Marmola atarietan
- Gineako zurak
- Igogailua garajeraino
- Antena parabolikoa

LOKAL KOMERTZIALAK - GARAJEAK - TRASTELEKUAK

INFORMAZIOA: 13 35 13 (ZARAUZ)

Tel. Faxa: (94) 491 23 19 (ALGORTA)

Tel: 74 42 83 (**ELGOIBAR**)

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegia, Xabier

Ansola, Nekane Aranburu,

Pello Arrieta, Juan Mari

Elustondo, Ina Garagarza,

Ane Goikoetxea, Amaia

Gorostiza, Juanito

Gorostiza, Maite Iriondo,

Edu Iriondo, Alberto

Iriondo, KOKOE, Imanol

Larrañaga, Javi León, Juan

Mari Mendizabal, Milagros

Oiarzabal, Benantzio

Otaegi, Aitor Zabaleta,

Julen Zabaleta, Deñe

Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.800 ale

LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.



luzua fundazioa
fundación luzua

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Nerbioak

Seguru denok entzun izan dugula noizbait lagun, lankide, ahizpa edo lehengusinen baten ahotan “ez dakit zer gertatzen zaidan azkenaldi honetan, baina nerbioetatik jota nago. Lehen, hobeto jasaten nituen gauzak, orain edozerk ateratzen nau neure onetik”. Lagun arteko kontu hauek askotan medikuen kontsultan errepikatzen dira.

Emakunderen artikulu batean irakurri nuen sarrera hau eta zera pentsarazi zidan: Zergatik eragiten diete nerbioek emakumei gizonezkoei baino gehiago, eta bizitzako zein unetan jasatzen ditugu nerbio eta agobio gehien?

Adinagatik izango dela pentsatzen dut, baina egia da atzera begiratuz gero, 30 urte inguru nueneko garaira, aktibitate gehien izandakoa zela: seme-alaba txikiekin, lan ugarirekin etxean bai eta etxetik kanpo ere... Lan asko eta ezberdinak egiteko barne-indarra neukan, urduri edo neure onetik kanpo egotea hainbeste igartzen ez zelarik.

40 eta 50 urte bitartean gauden emakume gehienon kasuan, haur txikiak hezitu behar diren sasoia pasatu dugu. Pentsatzekoa da gaur egun hobeto bizi beharko ginatkeela, guretzat denbora gehiagorekin. Baina, ez, ez da horrela gertatzen. Gure bizimodua autoanalizatzeari ekiten diogu eta gure egiten ditugu hainbat funtzio:


“famiaren oreka afektiboaren arduradun” izatea, esfortzu handia suposatzen duen “seme-alaben komunikazioaren hartzailea izatea”, etab. Eta aurreko hamarkadan pentsatzen genuen bezala aurkitzen gara, urte batzuk barru guretzat denbora gehiago izango dugula, alegia, eta urduri egoteari lagako diogula.

50. hamarkadako zenbait emakumeri galdetu diot nola ari diren garai hau igarotzen. Norberentzako denborarik gehien dagoen sasoia ote den galdetu diet, ea bizitza osoan pilatu eta bete ez diren ilusio horiek gauzatzeko lanetan ari diren. Gehienek emandako erantzuna zera da: menopausia, emakumea asko markatzen duen garai delako eta denbora libre gehiago dagoen sasoia izan arren, nerbioak ez dira lasaitzen eta bizitza beste ikuspegi batetik, heldutasunetik ikusteak, ez da, ez, oso erlajantea eta kasu gehienetan, ezta oso satisfaktorioa ere.

Hausnarketa labur honen osteko ondorioa, nerbioek eta agobioek kasu gehienetan arrazoi mediku bat dutela izan beharko litzateke. Izpiritu ahalik eta positiboenarekin egunak eskaintzen digunera egokitu behar gara, eta ahalik eta gehien aprobetxatu, azken finean, guretzat garrantzitsuena “al pie del cañón” jarraitzea baita.

Marivi Agirregomezkorta

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



KEXAK

- Gozo-Tokiren alboko portalean bizi den emakume batek deitu digu portal aurreko eskaileretan egoten den **zikinkeriaz** kexatzeko. Bertan egoten den gazte jendeari garbitasun piska bat eskatu nahi dio, eta mesedez, **tinbrei surik ez emateko**.

- Gizonezko batek zera esan digu: "Mintxeta inguruan **zaldi gainean ibiltzen denak kalte** baino ez digu egiten besteoi. Beldurra, kaka zapaltzeko arriskua eta kristoren usain txarra egoten da".

TXALOK

- Herri Eskolako 3. mailako neska-mutilak igerilekuko monitorea den **Gorka Sastre txalotu nahi du** gurekin oso jator portatu delako. Eskerrik asko!

- "Elgoibarko **Haundixa** txalotu nahi dot Ondarroari 4 eta 0 irabazi ziolako. Benetan partidu bikaina ein zeben eta aspaldiko partez gustura urten ginan Mintxetatik".

Errotatxok BARRENI:

1 996ko azaroaren 8a, HIESaren Astea Elgoibarren (171. zenbakia)

Plazaratutako alusioengatik eta gaizki ulertuak argitu nahian, Errota-txok esandakoa esateko erabili zuen irizpideak adierazi nahi ditu:

BARRENEk, elgoibartar seropositibo bat elkarriketatu nahi zuen, testimonioa inizialekin batera publikatuz. Ideia hau baztertu ondoren, astekariko lankideek HIESaren inguruan Institutuko gazteen artean bildutako galdera sorta baten erantzunak plazaratzea erabaki zuten.

Gaiaren prozesua aztertu ondoren, hona hemen proposamen biak ez burutzeko, hau da, gure kolaborazioa ukatzeko izan ditugun arrazoiak:

- Elkartearen izaeragatik, Errota-txok ez ditu zertan "busca" lanak burutu behar, are gutxiago, proposamenaren egileak beraiek, kazetariak, izanik. Bestalde, garrantzitsua testimonioa da eta anonimatoa ezinbestekoa deritzogu. Beraz, argitzeko, "morbo ustea" ez dagokie galderari, anonimatoa transgreditzearen ideiarri baizik.

- Bildutako galdera sorta irakurri ondoren, galdera kopuruaz, dibertsitateaz eta konplexutasunaz ohartu ondoren, Institutuan informazio-formazio ekitaldia planteatzea aproposagoa iruditu zitzaigun eta ez hain egokia puntualki aldizkari batean galdera batzuek erantzutea. Esan, Institutuko plangin-tza aurrera doala ikasleek eskatuta, bertan Errota-txok parte hartuko duelarik aurreko urtetan bezala. Informazio puntualaz blai gaudela uste dugu, eta egun, fenomeno-

ren prozesua ikusiz, beste era bateko pedagogia estrategiak ahalbidetzeko eta bultzatzeko funtzioa dugulakoan ari gara.
Errotatxo Elkarte

Euskara merkealdietan gure Udaletxean

Euskarak ez omen du dirurik behar, Euskararen inguruan ez omen dago zertan dirua gastaturik, helburu guztiak beteta omen daude... Horregatik Elgoibarko Udalak Euskara Batzordearen dirutik milioi erdia ken-tzea erabaki du, beste batzorde batzuetan gastatzeko. Beste batzorde guztien aurrekontua handitzen den bitartean Euskara Batzordeari kendu egiten zaio. Bien bitartean hainbeste denbora prestatzea kostatu den Erabilera Plangintza erabat geldituta, trebatzailearentzat behar den diruaren zain. Euskara Batzordea bera gero eta partaide eta ilusio gutxiagorekin, berez motela den dinamika gero eta motelagoa bihurtzen. Bi urte terdi pasa dira Euskara Batzordean, aurreko legegaldian, trebatzailearen lana eta figura onartu zirenetik, Udaleko langileak beren lana euskaraz egin ahal dezaten. Erabaki hau, ordea, atzera bota zuen Gobernu Batzordeak. Beste garai batzuk ziren. PNV-PSOE zeuden orduan Gobernuan. Gaur egun apenas alderik somatzen dugun Tripartitoaren aldetik (PNV-EA-PSOE). Euskarak bigarren mailako gaia izaten jarraitzen du.
Elgoibarko Herri Batasuna

Datorren abenduaren 6a (ostirala) jai denez, **abenduaren 5ean (osteguna)** aurkituko duzu **BARREN** astekaria zure etxeko buzoian.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Orain dela 38 urte ateratako argazki hau **Maritxu Agirregomezkorta "Markoni"**k utzi digu. Bertan agertzen diren neskek 22 urte zituzten orduan. Kuadrilako baten, Lide Gabilondoren ezkontza elizkizunaren aurretik Plaza Txikian elkartu ziren egun horretako oroigarria edukitze-ko.

Jantzietan fijatzeke esan digu Maritxuk, "begira zein beroki, zapata eta sonrero dotoreak!". Garai hartan edonork ez zuenez sonreriorik izaten, horrelako okasioetarako alokatu egiten ei ziren.

Kontuak kontu, Barrutiarenean bazkaldu eta egun zoragarria pasatu zutela gaineratu digu Maritxuk.

Erretratuan agertzen direnen izen-abizenak, ezkerretik hasita: **Mari Tere Bastida, Maritxu Agirregomezkorta, Miren Artola, Agustina Uria, Maritxu Urain, Lupe Torre, Isabel Cano, Maria Luisa Iribarren eta Arrate Zuazubizkar.**

Argazki zaharren atal honi berrikuntza ikutu bat eman nahian, datorren astetik aurrera, **ERRETRATU EZ HAIN ZAHARRAK ERE (50-60-70. hamarkadakoak) ARGITARATUKO DITUGU.** Ziur zure etxean ere badela horrelako erretraturik, ekarri **BARRE**nera eta gustuz argitaratuko dugu.



Azaroaren 18an, 73 urte zituela hil zen
PEDRO MAIZTEGI AGIRREGOMEZKORTA
"UPEITZA"ren sendiak,
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Etxe bila Elgoibarren

Santa Klara, Leku-Eder, IMH, babes ofizialeko etxebizitzak... Handik eta hemendik Elgoibarren etxebizitzak eraikitzeari buruzko berriak iristen dira. Batzuk egin berriak, besteak egiten eta aurrera begira laster batean hasiko dituztenak proiektuan. 10 milioi pta. inguruan hasita daude etxebizitzak Elgoibarren. Badira hau bezalako herri batentzat hori prezio garestiegia dela uste dutenak. Beste batzuek, ordea, merkatuaren arabera zorbakiak direla esango lukete. Baina, zein da etxebizitzaren egoera gaur egun?



Nonnahi ikus daitezke bigarren eskuko etxeak salgai edo alogeran.

Etxebizitzak egon, badaude. Zona ezberdinetan, handiagoak eta txikiagoak, bi bainugelekin, duplexak... Halere, etxebizitza erosteko orduan askotan gustuak alde batera utzi eta prezioari kasu egin behar izaten zaio. Gaur egun lanaren inestabilitateak eta etxeen prezio altuek bultzatuta, pribilegio bihurtu da askorentzat.

Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela dituen 2. eskuko etxe

baten batezbesteko salneurria 11 milioi ingurukoa izan daiteke eta horri bestelako gastuak (eskriturak, hipoteka,...) gehitu behar zaizkio, salneurriaren %10a, gutxi gora-behera.

Etxebizitza berriak

Guztira 3.700 etxe inguru daude Elgoibarren (berriak eta 2. eskukoak). Bigarren eskukoek gain eraiki berriak eta eraikitzen ari diren etxeak. Esate baterako, Santa Klaran orain hilabete

batzuk bukatu zituzten 72 etxebizitza. Etxe bakoitzak duen bistaren, metro karratuen, dagoen solairuaren arabera prezio bat edo beste izaten dute etxeek. Kasu honetan, merkeenak 13 milioi pta.ko kostua zuen eta garestiena 22 milioi pta. inguruan zebilen. Geratzen diren etxebizitzak 13,650 milioi (67,5 m karratu) eta 21,5 milioitan (95,96 m. karratu) daude.

Salneurriak merkeak direnean askoz errazago saltzen dira etxeak, noski. Kasurik garbiena IMH parean eraikitzen ari diren etxeetan ikus dezakegu. Izan ere, proiektua aurkeztu bezain laster saldu ziren gehienak. Gaur egun lehen faseko 36 etxeak salduta daude eta berehalako batean, proiektua Udalean onartu bezain pronto, beste 14 eraikiko dira azpiko aldean. IMH pareko etxe hauen batezbesteko kostua 160.000 pta. ingurukoa da metro karratuko.

Etxebizitza berri gehienetan, gainera, sukaldea, kalefazio zentrala, igogailua eta antzeko eskaintza sartzen dira prezioan eta horri gehitu behar zaio ordaintzeko ematen dituzten erraztasunak. Batetik etxea egiten joan ahala ordaintzen delako eta bestetik, banketxeekin hitzarturik izaten dituztelako kredituak.

San Roke garestiena

Kontuan izan behar dira etxearen egoera eta zona. Deba Garaia inmobiliariakoek esan digutenez, "gaur egun zonarrik estimatuenak erdi aldekoak dira eta hortik aurrera San Rokeko behe aldea, pista beltzaren ingurua". Halere, kontuan izan behar da askotan herri barruan dauden etxebizitzak nahiko zaharrak direla eta obra beharra izaten dutela; horregatik, "batzue-

tan beste zona batzuetara jo behar izaten da". Jendea nahiko tradizionala izaten da zentzu horretan, "askotan gertatu izan zaigu betidanik kaleren batean bizi izan denak kale berean nahi izaten duela etxe berria erostea. Gainera auriritzi asko dago auzoei buruz eta berehala markatzen ditugu oso urrutiko daudelako, nahiz eta Elgoibar bezalako herri txikietan distantziarik luzeena ere motza den".

Ahalmen ekonomikoa begiratu

Jendeak etxebizitza bat erostea erabaki eta inbiliaria batera jotzen duenean, gutxi gora-behera zein eratako etxea nahi duen garbi izaten du baina ez zein preziotan dagoen ez eta zein diru kopururi aurre egin diezaioketen ere". Hori dela eta, Deba Garaia inbiliarikoen lehen aholkua erosleak banketxe batera joatea izaten da, "bertan interesak begiratu, diru sarrerekin kontrastatu eta horren arabera kalkulatu ahal izango dute zein salneurritako etxebizitza eros dezaketen gehiegi ito gabe".

25 urtetik gorakoek jotzen dute etxebizitza bila, "normalean bikoteak izaten dira. Izan ere, gaur egun lan asuntxo dagoen bezala ikusita, normalean da bi soldata izan arte jendeak ez ematea pauso hori, ez bada gurasoen aldetik laguntza dutela".

Prezio egonkorak

Leku-Eder eta Santa Klarako etxebizitza berriak direla eta, jende askok etxebizitza zaharra

saldu egin du eta berria erosi, "horrelako etxebizitza aldaketak sarri gertatzen dira. Normala da jendeak etxebizitza zaharra utzi eta berriago bat nahi izatea. Azken finean bizitza kalitatea hobetzea da". Horrek, logikoki, bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta ugartzea dakar.

Deba Garaia inbiliarikoen arabera, "azken urteetan etxeen prezioak mantendu egin dira. Beraz, nahiko seinale ona dela esan daiteke normalean garestitza izaten baita". Horrez gain, azkenaldian banketxeetako interesek beherantz egin dute. Gainera, Eusko Jaurlaritzak lehenengo etxebizitza erosteko orduan hainbat laguntza ematen ditu, "eskaera egiten duenaren errenta aitortzea begiratzen dute, etxebizitzaren kondizioak ikusi, salneurria... Horiek guztiekin balorazioa egin eta kredituaren hainbateko bat subentzionatzen dute interes askoz baxuagoa ordaindu behar izaten delarik, 4,75a gutxi gora-behera. Hori bai, 5 urtean behin birbalortu egiten da, laguntza eskaera egin duen pertsona edo bikotearen egoera ekonomikoa aldatu egin daiteke eta". Panorama, beraz, ez da txarrena etxe bila dabiltzan bikote gazteentzat.

Alogera

Etxea erosteko aukera ekonomikorik ez du-

ETXEBIZITZEN PREZIOA ELGOIBARREN

- Berria (merkeena) 9 milioi
- Berria (garestiena) 26 milioi
- 2. eskuko merkeena 4-8 milioi
- 2. eskuko garestiena 20-30 milioi
- Alogera 40.000-50.000 pta.
- Leku-Ederren 14-26 milioi
- Santa Klaran 13-22 milioi
- IMHn 160.000 pta. m²

narentzat alogera izan daiteke behin-behineko irtenbidea. "Jende askori ez zaio iristen kreditua ordaintzeko eta egoera hobetu bitartean alogeran sartzen da". Halere, oraindik orain gehiengoak nahiago du etxebizitza propioa erostea, "gainera, gaur egun dauden erraztasunekin, piskat gehiago ordainduta ere, merezi du etxea erostea. Alogeran dagoenak ez du dirurik aurrezten ez eta inbertitzen ere. Eta arlo fiskalean desgrabatzen duen arren, etxebizitza erostea da gaur egun fiskalki egin daitekeen gauzarik probetxugarriena". Dena dela, Elgoibarren ez dago alogeran eskaintzen den etxebizitza asko, "horregatik errentak ere ez dira merkeegiak. Batezbeste, altzariak jarrita dituen etxe baten errenta 40.000 pta. ingurukoa izaten da hileko".



Etxebizitza erostea ala alokatzea: Joera nagusiak

Sektore publikoak ez dio behar adinako garrantzia eman alogerako etxebizitza eskuratzeko arazoari. Baliabide ekonomiko kaxkarrak dituen biztanleriaren zati bat egon badagoela jakinik, hau da, aurrez-iririk ez duten gazteak eta etorkizunearan zein egoeratan egongo diren ez dakitenak, sektore publikoak aintzakotzat hartu beharko luke aipatu arazoa. Baldintza hauetan etxebizitza bat lortzea konplexua izateaz gain, garestia ere bada. Etxebizitzaren prezioa alde batera lagata, beste gastu mordoak sortzen dira: zergen ordainketa, notarioaren gastuak, erregistroa... Hau horrela izanik, hau da, egoera probisional batean, etxebizitza alokatzea irtenbide aproposa litzateke. Egoera ekonomikoa edo pertsonala aldatuz gero, erraz utz daiteke etxebizitza eta beste bat eskuratu. Alde txarra litzateke, bertan inbertitutako dirua galtuzat jo daitekeela. Gaur egun etxebizitza bat alokatzea erabakitzen duen pertsonak izan dezakeen arazorik nagusienak,

alogeran dauden etxebizitzaren eskaintza urria eta duten prezio garestia dira. Nire ustez, puntu honetan sektore publikoaren eskusartzea beharrezkoa da arazo hauei irtenbidea topatze aldera.

Ildo honetatik Eusko Jaurlaritzak zenbait neurri indarrean jartzeko asmoa dauka. Neurrien artean daude etxebizitzak alogeran jartzen dituztenei abantaila fiskalak ematea, diru sarrera txikiak dituztenei alokatzeko asmoz promozio publikoko etxebizitzak eraikitzea bai eta alogerako etxebizitzaren

zerrenda bat sortu ere interesa dutenentzat.

Epe motzera begira, aipatu ditudan neurri hauen guztien artean, elgoibartarron artean alogera sustatu dezakeena jabeek abantaila fiskala eskaintzearena da. Neurri honekin etxebizitzak hutsik ez edukitzera animatuko litzateke jendea. Bestetik, Elgoibarren eraikiko diren babes ofizialeko etxebizitza batzuk alogerarako izatea eskatu beharko litzaioke Udalari. Kontuan izan behar da gure herriko sektore batentzat alokatzea dela, diru aldeetik begiratuta, irtenbide bakarra.

Alogera, etxebizitza eskuratzeko beste edozein metodo bezain aproposa den ideia babestu eta finantziatzeko Eusko Jaurlaritzak duen interesa ikusirik, litekeena da alogerak gure herrialdean duen probisionaltasun kutsua desagertzea. Europako gainontzeko herrialdeetan sektore publikoak izan duen jarrera baikorrak alogeran bizi direnen kopurua askoz altuagoa izatea ekarri du.

(Erredakzioan itzulia)



EDURNE GABILONDO
Inmobiliariako agentea (A.P.I.)



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte

MAKETATZAILE bat behar da

ESKATZEN DA: MACI NTOSHera QuarkXPress eta Photoshop	ESKAINTZEN DA Lan
---	-----------------------------

Informazio gehiago: (943) 74 16 26 (Imanol)

Interesatuok bidali kurrikulum-ak abenduaren 5a baino lehen:



Truk

San Frantzisko, 27
Tel. 74 26 21

Etxebizitza erosi ala alokatzearen aldekoa zara?



EUGENIO FERNANDEZ
63 urte, jubilatua

Alkilerrean bizi izan naiz baina ahal izanez gero, nahiago dut etxebizitza erostea. Askoz ziurragoa da, bestela edozein momentutan etxetik bidal zaitzakete.



M. JESUS URIONABARRENETXEA
47 urte, etxekoandrea

Erostitia nahixao, nik hori ein naban ezkondu nitzanian. Alkilerra karua da eta etxia sekula ez da norberana. Hobe gehixo estutzia baina etxia erostia.



CONSUELO PRIETO
44 urte, etxekoandrea

Garai batean etxea erosi nahi baina ezin eta alogeran hartu genuen. Gero baserria erosi genuen, inbertsio modura, nahiz eta alogeran bizitzen jarraitzen dugun.



ROSARIO IPARRAGIRRE
48 urte, etxekoandrea

Ahal izanez gero erostearen alde nago. Alkilerrean diru bat gastatzen ari zara eta etxea sekula ez da zurea. Gainera, oso garesti daude hemen alkilerrak.



VICENTE CARO
47 urte, espezialista

Hobe erostea, baina ez dago edozeinen esku. Gazteek oso zaila dute, lan finkorik ez eta etxebizitzak oso garesti, laguntza gehiago izan behar lukete.



JOSE LUIS ESCUDERO
43 urte, inpresorea

Zazpi urtez alogeran bizi eta gero etxea erosi egin nuen. Probisionalki bada, alogera soluzio ona da. Atzerrian alogeran bizitzeko joera dago, kultura kontua da.



Etxeko loreak

Abenduak 3, asteartea ·
Kultur Etxean, 7:00etan



ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA

BABESLEAK:
MIMOX - ASTIGARRAGA - EL RUSO

■ Mus txapelketa

La Unión elkarteak bazkideentzako XIX. bat bateko Mus Txapelketa antolatu du hilaren 30erako, larunbata. Arratsaldeko 4etatik aurrera jokatu da La Unión-en egoitzan. 1.000 pta. eman behar dira bikoteko izena ematerakoan.

■ Altzarien errestaurazio ikastaroa luzatu egin da

“Eskuz” taldeak altzari zaharrak berritzeko azaroan antolatu zuen ikastaroa luzatu egingo da abenduaren 2tik 20ra bitartean. Mahai, aulki edo beste edozein altzari zahar erabat itxuraldatzeko tekniken berri emango dute ikastaroan. Pedro Muguruzako ikastetxeko lokaletan izango dira klaseak arratsaldeko 3etik 5etara bitarteko ordutegian. Ikastaroaren zenbatekoa 5.000 pta.koa da. Izena emateko 74 08 01era deitu (Mertxe).

■ Zerga publikoak

1996. urteari dagozkion prezio publikoak abenduaren 5era arte ordaindu ahal izango dira goizeko 11etatik ordu batera bitartean Udaltxeko diru-bilketarako bulegoan. Honako hauek dira ordaindu beharrekoak: espaloi eta aparkalekuetako erretserbak, bide publikoan dauden mahai eta aulkiak, auto-taxien zerga eta Altxolako etxebizitzien alogerak.

■ Nazioarteko HIESaren eguna igandean

Domekan, abenduak 1, HIESaren Eguna ospatuko da mundu osoan. Egun honetarako, Errotatxok, Drogomenpekotasunen Prebentziorako Elkartek, herriko balkoi eta leihoe-tan izara zuria lazo gorriarekin eskegitzeko eskaera luzatu nahi du. Era berean, goizeko 9etatik ordu batak arte, mahain informatiboak jarriko dira kaleetan. Eguerdiko ordu batean, berriz, kontzentrazioa egingo da Plaza Handian.

100 urte, mende bat

100 urte bete ditu Juana Katalina Ondarre Mugerzak. 1896ko azaroaren 25ean jaio zen Errosario kalean. Berarekin hitzegiterik ez dugu izan, adinak eraginda osasun aldetik nahiko ahul baitago baina bere seme Manolok kontatu dizkigu Katalinen nondik-norakoak.

Katalinek Ramon Unzillarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen, horietariko bi jaioberritan hil zirelarik. Beste biak, Carlos eta Manolo futbolista ospetsuak izan ziren, Manolok lehen dibisioan ere jokatu zuelarik. 44 urte zituela alargun geratu zen, senarra gerrate zibilean preso egin eta gartzelan bertan hil zenean. Emakume gogorra eta langilea, semeak aurrera atera zituen, Alkortako telarrean lanean lehenengo eta Sigman

gero, jubilatu arte. Joan den domekan ospatu zen 100. urtebetetzea familiarterko jatordu batean. Zorionak Katalin!



Santa Zezilia egunaren bueltan hainbat musika ekitaldi ospatu dituzte herriko beste horrenbeste taldek iragan berri den asteburuan. Inazio

Bereziartua Musikeskolako Banda Gaztea, Ikastolako neska-mutilak, Udal Txistulariak, Musika banda eta Itxaropena eta parroki abesbatza izan dira aipatu eguna ospatu dutenak. Guztiek argi utzi zuten musikari eskainitako eguna ospatzeko ez dagoela musikarekin ospatzea baino modu hobirik.

Euskal Presoen aldeko herri plataforma eratu berri da

Asteazken iluntzean, hilak 27, Iñaki Jaiok, Mikel Alberdik eta Iñaxio Iriondok gartzelan 12 urte bete zituzten egunean hain zuzen ere, 30 bat herritar Mekanikan bildu ziren presoen eskubideak errespetatzeko eskatzen duen manifestu baten aldeko atxikimendua adierazteko. Plataforma honek egin zuen bileran, bozeramale bat izendatu eta manifestua irakurri zuen. Sakabanaketa politika salatu eta berehala buka dadin eskatzeaz gain, beste eskakizun batzuek ere aipatzen dira manifestuan, euskal presoen oinarritzko eskubideen errespetua, osasun eta bizi baldintza dui-

nak, bizitza kulturala edo senitartekoein harremana edukitzeko eskubidea, zigorraren 3/4ak bete dituzten 120 preso berehala kalean utz ditzatela lege espainiarrak dion bezala, sendatu ezin diren gaixotasunak dituztenak aske lagatzea eta Euskal Herrira etortzea nahi duten presoak, sozialak zein politikoak, bere herrira ekar ditzatela. Era berean, Elgoibarko Udalari, azken plenoan onartu zen akordioaren arabera jokabidea eskatzen zaio bai eta bertan plenoan zein manifestuan sinatutakoa ere aurrera eramateko bide guztiak jar ditzala.



■ Haurrentzako txotxongiloak

Udal Kultur Zerbitzuak haurrei zuzenduriko txotxongilo saioa antolatu du iganderako, abenduak 1. Nazioarteko XIV. Txotxongilo Jaialdian parte hartzen diharduen “Banialuka-Polonia” konpainiak “El tigre Pedro” lana antzeztuko du Herriko Antzokian. Banialuka teatroa Poloniako txotxongilo talderik zahar eta ezagunena da eta kontatuko duten istorioa fantasia eta misteriozko ipuin bat da, Pedro izeneko tigrea protagonista duena. Saioa arratsaldeko 4,30etan hasiko da.

■ Landare eta lorei buruzko hitzaldia

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak landare eta loreen inguruan interesa duen guztiei zuzenduriko saioa antolatu du abenduaren 3rako, astearte. Jagoba Rekondo gai honetan aditua denak, landareak nola bizi diren azalduko du: sustraiak, enborra, hostoak, erretserba zatiak, ugal-keta sexuala eta ez sexuala... Lehen saioan jendeak bigarren baterako interesa agertzen badu, beste saio bat antolatzeko aukera egongo da. Hitzaldia arratsaldeko 7etan hasiko da Kultur Etxean.

■ Presoen aldeko akanpada

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordeek Euskal Presoak Euskalerriratzearen aldeko akanpada antolatu dute gaurtik hasita, hilak 29, abenduaren 1era bitartean. Joan berri den asteazkenean 12 urte bete ziren Mikel Alberdi, Iñaki Jaio eta Iñaxio Iriondo gartzelan sartu zituztenez. Hori dela-eta, asteburu osoan zehar, kanpin dendak jarriko dituzte Plaza Handian presoak euskal gartzeletara ekar ditzaten eskatzeko. Abenduaren 1ean, akanpadari amaiera emateko, manifestaldia egingo da Plazatik hasita arratsaldeko 7etan. Abenduaren 4an, berriz, Estatu espainolean 17 urtez preso egon den Tomas Carrerak “Presoak Euskal Herriko gartzeletan” gaiari buruz hitz egingo du. Saioa Kultur Etxean izango da iluntzeko 7,30etan.

■ 650. urteurreneko ospakizunak abenduan

650. urteurreneko ospakizunen artean hainbat hitzaldi antolatu ditu Udalak. Datorren ostegunean, abenduak 5, Josetxo Zufiaur etnologoak artzantza tradizionalari buruz hitz egingo du. Lagungarri modura diapositbiak erabiliko ditu. Saioa euskaraz izango da. Ordua eta lekua: iluntzeko 7etan Kultur Etxean. Hitzaldi hau ez da 650. urteurreneko ekintzen barruan antolatu den bakarra. Abenduaren 12an, osteguna, Antxon Agirre ikerlariak ohitura eta usadioei buruz hitz egingo du gaztelaniazko jardunean. Abenduaren 14an, larunbata, iluntzeko 8etan Añorgako Ertizka Zortzikoteak kontzertua eskainiko du parrokian. Gauean, Ttantikak “Umekeriak” obra antzeztuko du Herriko Antzokian. Abenduaren 19an Koldo Lizarralde “Elgoibarko jaiak” liburuaren aurkezpena egingo du arratsaldeko 7,30etan eta 20an, urteurrena betetzen den eguna ospatuko da.

Gloria Santiago:

"Haizea taldea da antidepresiborik onena"

Orain dela hilabete inguru egin zuen Haizea emakume taldeak bere aurkezpena. 30 emakumez osatutako talde honen lehen helburua garapen pertsonala da eta hortik aurrera,

emakumearen funtzioa aldarrikatu nahi dute egungo gizartean. Gloria Santiago Haizeako kidea da eta berarekin izan gara eratu berri den elkarte honi buruz hitzegiteko.

- Guraso Eskolaren ondorioz hasi zen dena.

- Bai, hala da. Guraso Eskolan ibili ginen emakume talde batek nolabaiteko jarraipena eman nahi genion han hasitakoari. Gure gaiez hitzegiten hasi eta hainbat eta hainbat puntu amakomunean genituela konturatu ginen. Sentsibilizazio horren ondorioz talde bat eratzeko ideia sortu zen eta emakumeen talde baten hutsunea somatu genuenez Elgoibarren, guk geuk sortzea erabaki genuen.

- Haizea.

- Bai. Lehen Haizea emakume taldea egon zen. Gaur egun desagertua dagoen arren, oraindik ere baja eman gabe zegoen eta talde bezala eratzerakoan estatutuak osatu behar genituen, Haizea izena mantentzea erabaki genuen, haiek hasitako filosofia bat zetorrelako gure helburuekin.

- Nori zuzendua da?

- Emakumei orokorrean. Gaur egun 35 eta 50 urte bitarteko emakumeak gaude, 30 guztira. Jende gaztearengana heltzea ere nahi genuke, beraien kezak ezagutzea, komentatzea eta taldeak jarraipen bat izatea.

- Eta zein dira helbu-



"Emakumeok gure izaera aldarrikatu behar dugu. Beste ezer baino lehen, pertsonak gara"

ruak?

- Lehenik eta behin garapen pertsonala. Oraindik ere emakumeak oso baju daukagu autoestima eta seguritate hori lortu behar dugu. Hortik aurrera gure nahia kalera ateratzea da, emakumeon eskubideak aldarrikatzeak. Izan ere, beste ezer baino lehen, emakumeok ere pertsonak gara.

- Horretarako ekintzak antolatu dituzue.

- Bai. Momentu honetan tailer batzuk egiten ari gara emakumeen talde

baten funtzionamendurako jarraitu behar diren pausok lantzen ditugularik. Datorren astean bideo-forum-arekin hasiko gara. Pelikulak ikusi eta gero moderatzaile batekin gai konkretuei buruz eztabaiatuko dugu, besteak beste, autoestima, sexua, ezkonbitzaren errutina, lana... Gainera, horiek guztiak aurrera eramateko haurtzaindegia jarriko dugu ekintza bakoitzak irauten duen denboran. Atxutxia maikako begirale bat izango dugu.

- Dirulaguntzak jasotzen dituzue?

- Bai, batetik Emakundetik eta bestetik, Udaleko Ongizate sailetik. Kati Ponsek laguntza handia eskaintzen digu.

- Lan taldeetan batzen zarete, ez?

- Bai, hala da. Lan talde desberdinak daude. Esate baterako, kulturaren erakusketa bat, zinea, antzerki taldea eta hitzaldiak antolatuko dituzte; osasunean, autoestima, masaia, erlajazioa, elikadurari buruzko hitzaldiak eta abar; ekologian, birziklaia landuko da, sukaldaritza eta eskulanei buruzko ikastaroak, bidaiak, afariak... Denetik egingo dugu.

- Orain arteko esperientzia?

- Oso ona izan da. Garrantzitsuak sentitzen gara, egunerokotasuna hausten dugu. Haizea edozein emakumerentzat antidepresiborik onena da. Nahi duten emakume guztiek ateak irekita dituzte. Asteartero arratsaldeko 3etatik 4,30etara elkartzen gara Pedro Muguruzako eskola zaharretan dugun lokalean. Nahi duenak har dezake parte, bai lantaldeetan bai eta bazkide bezala ere. Hileko 200 pta.ko kuota ordaintzen dugu.

Nora Arakistain

Gabi jatetxeko
tabernaria



● **Juergarako egun bat?**

▶ Zapatu gaba.

● **Eta edari bat?** ▶ Bayles-a.

● **Mozkorrak uxatzeko?** ▶ Onena kasurik ez eitia.

● **Bizitzako zein osagaiz egingo zenuke pintxo bat?**

▶ Lagunak, lana eta maitasunaz.

● **Ligatzeko barra aurrean ala atzean?**

▶ Aurrian hobe, gainera ni egoten naizen tokixan gehixenak ni baino bastante nagusixauak dia.

● **Zein mezu sartuko zenuke botila batean?**

▶ Euskal Herrirako pakea eskatuko nuke.

● **Dantzarako musikarik onena?**

▶ Euskal musikia, trikitixa, Egan, Anje Duhalde...

● **Makilatzen al zara?** ▶ Egun espezialetan bakarrik.

● **Ezpainetarako kolore bat?** ▶ Granatia marroi aldera.

● **Zer lortzeko edango zenuke pozima magikoa?**

▶ Lana berehala lortzeko.

● **Zerk mozkortzen zaitu pozez?** ▶ Lagunekin egotiak.

● **Zerk erretzen dizu alkoholak bezala?**

▶ Jendian egoismuak eta inbidixak.

● **Zer ospatuko zenuke txanpainaz?** ▶ Nere ezkontza.

● **Elgoibar lanerako eta Mendaro...** ▶ Bizitzeko.

● **Nahastuko ez zenituzkeen bi edari?**

▶ Coca-Cola eta Martiniak neri oso gaizki eitzen die.

● **Bazkal osteko kafea eta pastela edo goiz parteko bermuta eta pintxoa?** ▶ Kafea eta pintxoa.

● **Zer egin gabe ez zara etxetik ateratzen?** ▶ Orraztu gabe.

● **Nor gonbidatuko zenuke trago batera?**

▶ Aranzabal, Errealeko jokalarixa.


Etxebizitzak

DOINUA:

Elorrioko kalia

Zenbat pertsona dago munduan
oin etxebizitza gabe
garai hauetan arazo hauxe
ez al da nahikoa grabe
gu ere laster ez gara izango
etxe txiki baten jabe
diru kontuak gaur egunean
nahiko txartuta daude.

120 metro karratu
sukalde eta lau gela
bertara joan ikustera ta
poxpolo kaxa ustela
zer uste dute saltzaile hauek
denak zoroak garela,
gaur eguneko bizimodua
oso garestia dela.



KEPA MENDIKUTE



I. URTEURRENA

1995eko azaroaren 28an, 31 urte zituela hil zen
JUAN CARLOS FERNANDEZ FERNANDEZ.

*Zure lagunok
beti izango zaitugu gogoan.*



1.501 pertsonak sinatu du Udalaren Manifestua

San Bartolome jaietan izan ziren istiluen ondorioz, Elgoibarko Udalak manifestu bat kaleratu zuen EAJ, EA, PSE, IU eta PPren izenean. Irailetik duela pare bat astera arte aipatu manifestua herriko toki desberdinetan egon da nahi zuenak sina zezan. Guztira, 1.501 pertsonak sinatu dute. Udalak kaleratu duen idatziaren arabera, "kontuan izanik Elgoibarren adin txikikoak eta 65 urtetik gorakoak biztanlegoaren %38a direla (4.166 pertsona) sinatzeko adinean daudenak 6.797 pertsona izan dira. Hauetatik 1501 pertsonak sinatu du, biztanlegoaren %22ak". Gillermo Garate alkatearen ustez herritarren erantzuna ona izan da, "kontuan izan behar da jendea orain arte ez zela horrelako gaietan bustitzen eta bat ere laguntzen ez duen kontestu sozio-politikoan sortutako manifestua zela. Pozik egoteko modukoa da". Jende gehienak Udaltzaingoan eta Udaletxeko idazkaritzan jarritako orrietan sinatu zuen eta, "azpimarragarria da enpresetan izan den erantzuna, %43ak sinatu baitu". Gillermo Garatek, herritarrek zoriondu nahi ditu, "manifestuaren bidez ikusten baita jendea biolentziaren aurka dagoela eta Jose Mari Castañaresekin solidaritatea azaltzen duela".

BRUES enpresa ari da San Migeleko errekastoko lanak egiten

San Migeleko errekastoko lanak egiten ari zen Huarte enpresak behea jo ondoren, Aldundiak BRUES S.A.ren esku utzi du lanen ardura. Iragan berri den astean hasi dira makinak Santa Klara inguruan lanean. Obrak Brues-i ematea Aldundiaren erabakia izan da, obren kargua hartzen zuen enpresak Huarteri jarri zitzaizkion baldintzak onartu behar zituelarik: aurrekontuaren zenbatekoa, lanak bukatzeko epea, etab. Lanen zenbatekoa 400 milioi ingurukoa da eta burutzeko epea urte terdi inguru.

Udal Kirol Patronatuko zerbitzuak kontratzeko lehiaketa kaleratu da

Udal Kirol Patronatuko lau zerbitzuren suktratazioari buruzko oinarriak kalera- tu berri dira Gipuzkoako Buletinean: garbiketa, masaia, aerobika eta igeriketa / sorospen / eskalada / tenis / kirol anitzak zerbitzuak. Oinarriak Patronatuko batzorde erretoreak aho batez onatu zituen hilaren 19an. Kontratu guztiak sei urterako izango dira, urtebeteko epean berri- tuko direlarik. Zerbitzu guztietan autonomo erregimenean egotea beharrezkoa izango da. Tabernaren zerbitzua Aste Santuan egingo da publiko eta administrari postua 97ko irail- lean. Eskaintzak aurkezteko epea 13 egunekoa da. Oinarriak Kirol- degian jaso daitezke.

- GARBIKETA: Udal Kirol Patronatuko instalazio guztien garbiketa egin beharko da (Kiroldegia, Mintxeta eta Tenis Pista). Zerbitzua hartzen duenak ez du maiatzera arte Mintxetako garbiketa egin beharko, orduan bukatzen baita Patronatua eratu aurretik eginda zegoen kontzesioa. Urte osorako 4.000.000 eskainiko ditu Udalak gehienez; hortaz, kopuru hori edo horren azpitik dauden eskaintzak aintzat hartuko dira. Eskatzaileak garbitasunerako produktuak (xaboiak, komunerako papera...) jarri beharko ditu. Gar-

biketa lanak instalazioak itxita daudenean burutu beharko dira. Kiroldegian, berriz, irekita dagoen ordutegian pertsona bat egon beharko da momentuko garbiketarako egiteko.

- AEROBIKA: Aerobika, aquerobika, gimnasia egokitua, eta mantenu gimnasia emateko gaitasuna eduki beharko du eskatzaileak. Aerobik monitore titulua eskatzen da, bai eta euskaraz hitz egiteko gaitasuna izatea ere. Esperientzia kontuan hartuko da.

- Igeriketa eta sorospen monitore, tenisa, eskalada eta kirol anitzak: zerbitzu hauetan eskaintza ezin da banaka egin; pertsona talde batek zerbitzu guztietarako proposamena aurkeztu beharko du. Igeriketa monitoreak euskaraz emateko ahalmena eduki behar du eta zerbitzu horretarako 3.500.000 eskainiko dira eta gaitasuneko zerbitzuetan, sarreraren %70a.

- MASAIA: Masaia titulua edukitzea eta euskaraz hitz egitea eskatzen da. Patronatuak zerbitzu honek hilero sortzen dituen diru- sarreraren %70a eskaintzen du gehienez. Gaitasuneko %30a Patronatuarentzat izango da. Eskaintza ekonomikoa, zerbitzuaren ordutegia eta esperientzia kontuan hartuko dira.



Igeriketa eta sorospen zerbitzuak ere atera dira lehiaketa publikora.

Altzolako Torrekua (IV)

■ Naos kapitaina deritzo Andrei hainbat dokumentutan. Gutxienez 20 urtetan zehar aritu izan zen itsasoan eginkizun desberdinak zirela eta. Urte hauetan San Migel, San Andres, Hiru Erregeak eta San Pedro itsasontzien jabe izan zen, batzuetan jabetza banatuta izanik beste batzuekin.

■ Zorigaitza ere ezagutu zuen negozio-arloan: ekaitzak, piratak edo erregearen zerbitzuan Marsellako armadaren aurka hiru untzien galera nozitu zuen. Halere, giza ikuspegitik zorigaitzik handiena 1565. urtean izan zuen. Izan ere, Andresen unti batean sei elgoibartarrek galdu zuten bizia "Lur berrian".

■ Negozioez gain bere auzunean eta herriaz ere arduratu zen Andres. 1557. urtean beste 17 altzolarrekin batera eliza eraikitzeko konpromezua hartu zuen, garai hartan San Anton izeneko ermita partikularra bakarrik zegoen eta. Halere, proiektua ez zen gauzatu.

■ Gipuzkoa, Donostia eta Hondarribiko defentsarekin kezkatua zegoen, mugaz beste aldekoen erasoei aurre egiteko. Elgoibarko herriak bidali zuen konpainiaren kapitaina Andres Alzola izan zen eta gerra egoerari irtenbide bat topatzeko asmoz Gipuzkoako batzarretan

parte hartu zuen alkatea eta alkateordearekin batera.

■ Andres Alzola 1575. urtean hil zen testamenturik egin gabe, ondorengorik ez zegoen ondasunak banatuz. Halere, badirudi hil aurreko urteetan negozioak beharantz egin zuela. Beraz, Andres hil bezain pronto hartzekodunek (Italiako familia ilustreak eta herritar asko ere tartean) auzitara jo zuten ondasunak jabetzeko. Tolosako auzitegiak Catalina Araizkoari eman zituen Andresen ondasunak, bere senarrari zor zionaren ordainetan.

■ 1580. urtean Martin Mokoroa eta Magdalena Yartua senar-emazteak Tolosako auzitegiak emandako erabakia birraztertzea eskatu zuten. Auzitegiak, Catalinak 5 urtetan Andres zenaren mendi eta lonjen etekinekin zorrak kitatu zituela ikusita, enkantean jarri zituen ondasunak. Martin Mokoroak erosi zituen 2100 dukatetan.

■ Gaur egun Torrekua dorretxea Jose Maria Balanzategirena da.

PELLO ARRIETA



Jose Luis Mazzantini Egia (1856-1926)



- Errosario kalean jaio zen 1856ko urriaren 10ean.
- Giuseppe Mazzantini zen bere aita, Toscanako Pistoia-koa (Italia). Ama Bonifacia, berriz, Andikano baserrikoa zen. Anaia bat izan zuen Llodion jaiotakoa.
- Bonifacia Lázarorekin ezkondu zen baina ez zuten seme-alabarik izan.
- 2.901 korrida toreatu zituen. Hauetatik, nobilladak 362 izan ziren eta 2.290 Europan toreatutakoak. Hil zituen zezen kopurua ere ez zen makala izan: 5.382 zezen 19 urteren buruan. Urte hauetan 11 aldiz harrapatu zuen zezenak.
- Madrilera diputatu eta alkateorde izan zen. Guadalajarako eta Avilako gobernadore eta Valentziako poliziaburu.
- 1891ko abuztuaren 25ean, Txiki Eguenean Elgoibarren toreatu zuen.
- Sarah Bernhardt paristar pintorea eta eskultorea maitale izan zuen.
- Literatura eta musika zituen zaletasun nagusiak. Lagunek "Señorito loco" deitzen zioten eta prentsan "Rey del volapie" izenez zen ezaguna. Beti jazten zuen "levita" eta "frac"a.
- 1926ko apirilaren 24an hil zen.

JOSE LUIS ARANA



I. URTEURRENA

1995eko azaroaren 26an, 63 urte zituela hil zen JOSE RAMON AROZENA ANSOLAren oroimenez, URTEMEZA izango da larunbatean, hilak 30, arratsaldeko 7etan Parrokian.

Joango zaretenoi mila esker alde zurretik.



EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 3 - Real unión 5 (Infantilak)
Haundi 4 - Aurrera 0
 Pedrusko 2 - Beti Sutan 5 (2. erreg.)
 Elgoibar 7 - Bergara 1 (2. jubenilak)
 Vasconia 1 - Elgoibar 5 (1. erreg.)
 Real Sociedad 0 - Elgoibar 0 (Kadeteak)
 Munibe 1 - Elgoibar 4 (1. jubenilak)
 Bergara 1 - Elgoibar 1 (Neskak)

Saskibaloia

Zumaia 45- Elgoibar 33

Eskubaloia

Hernani 14 - Pagoaga Elg. 14 (Jub. neskak)
 Aloñamendi 26 - Hyundai Elg. 21 (Senior mut.)

Futbitoia

S. Pitxote 2 - Bokordo 4
 Orbela 11 - Aurten Bai 2
 Berrogei Duro 3 - Kunta 2

Areto futbola

Inter 1 - Elgoibar 3 (1. maila)
 Araeta 6 - Elgoibar 3 (Autonomikoa)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 30
10,00 Eibar - Martutene (Kadeteak)
11,45 Elgoibar - Hondarribia (1. jub.)
15,30 Urki - Tolosa (Jubenilak)
17,15 Elgoibar - Euskalduna (1. erreg.)
Igandea, 1
9,30 Urki A - Lagun Onak (2. jub.)
11,15 Eibartarrak - Elgoibar (2. jub.)
13,00 Beti Sutan - Antzuola (2. erreg.)
14,45 Gazteak - Aretxabaleta (2. jub.)
16,30 Elgoibar - Urola (Kadeteak)
18,15 Gazteak - Zestua (2. erreg.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 30
16,00 Pagoaga Elg. - Urnieta (Jub. neskak)
17,30 Hyundai Elg. - Jauja (Seniorrak)

Futbitoia, Kiroldegian (Arbitraia: Zazpi)

Igandea, 1
9,00 S. Braga - Maser
10,00 PSK - Kosakos
11,00 Menisco - Sanroketarrak
12,00 Sorpresa - Aldavas



Alberto Vallejo:

“Urazpian ezezik ehizan ere ibiltzen naiz”

■ **Orain dela zenbat hasi zinen urazpiko arrantzan?** - Duela 12 urte. Anaiarekin hasi nintzen. Hasieran Deba eta Mutriku inguruan eta gero nere kontu leku berriak ikasten joan naiz. Lekeitio eta Getaria bitartean txoko polit mordo dago, haitz arteko tokiak. Oinez pare bat ordu behar dira hara iristeko, horregatik onena txalupa batean bertaraino joatea izaten da.

■ **Urazpian ibiltzeko ekipoa?** - Nik neoprenoak bi traje dauzkat, 4 mm-ko bat eta 7ko beste bat. Honez gain, antiejuak, fusila, berunak, boiak eta gantxoak, sarea, linterna, eskularruak eta eskarpinak dauzkat. Ekipo dexente batek 60.000 pta. kosta ditzake.

■ **Zein sakoneratan ibiltzen zara?** - 2 metrotik 8ra bitarteko sakoneran. Botilarekin ibiltzea asko gustatzen zait baina nahiago dut urazpiko arrantza egitea.

■ **Harrapatu duzun piezarik handiena?** - 14,4 kiloko kongrio bat eta 12,8ko beste bat. 4,6 kiloko lupina bat eta olagarroak ere ederak hartu izan ditut, 4 kiloko bat bai. Lupina eta lupineta, itsaskabra, txokoa, muxarra, arrain balezta, barbarina eta xangurroa dira kostaldean arruntak.

■ **Arrain asko sartzen al da gure**



itsasertzean? Urte batzuk besteak baino hobek izan ohi dira.

■ **Estuasunik izan duzu urazpian?** - Bai. Soka edo aleta haitzetan kateatu izateagatik estuasun txikiak, bai eta kolpe batzuek ere. Hasi berri den batek ez luke itsaso zakarra denean sartu behar, gainera, kontu handia izan behar du olatuek jotzen duten lekuetan.

■ **Urte osoan ibiltzen zara urazpian?** - Normalean otsailetik urrira arte. Neguan ez naiz uretan sartzen, neguan ehizan aritzen naiz.

■ **Betidanik ehiztari?** - Bai, etxean beti izan dira ehiztariak, aita, anaia... Normalean postu finko batean ehizatzen dugu paseko tokietan. Honez gain, probintzian ibiltzen gara “ojeo”a delakoan. Birigarroak eta usoak ehizatzen ditugu batez ere.

■ **Arrantza eta ehizan aritzen zara. Zer dute bi kirol hauek?** - Agian zerbait harrapatzeak sortzen duen erakargarritasuna. Nolabait esateko, ehiztari eta ehizatua-ren arteko harremanak erakartzen nau.

• Adina: 26
 • Jateko arrainik estimatuena? Lupina
 • Eta txoririk goxoa? Birigarroa
 • Ikusi duzun arrainik bitxia? Itsas-zalditxo bat.

UDA BERRI
 ELGOIBAR

ZURE HAURRARENTZAKO PRODUKTUEN BANATZAILEA EUSKAL HERRIAN:
 - Kotxeak eta sehaskak
 - Sehaskatxoak eta osagarri guztiak

BAMBINO

Estazio kalea 3
 ☎ 20 69 93
 EIBAR

DURANGO: ☎ 681 14 83 / 620 35 72 - BILBO: ☎ 444 71 04


Maria Urizar

ileapaindegia
 eta solariuma

Errosario 9-1ezk.
 ☎ 74 44 89 ELGOIBAR

J. M. Arakistainek Almeriako taldea entrenatzeko proposamena jaso du

Jose Mari Arakistain entrenatzaile elgoibartarrak bigarren A mailako Almeriako taldea entrenatzeko proposamena jaso du. Arakistainekin harremanetan jarri gara eta "oraindik ezer esaterik ez dagoen arren, egia da Almeriatik deitu didatela. Momentuz ez dut erabakirik hartu, zain nago ea zein notizia sortzen den. Almeriako taldea entrenatzeko proposamena ondo aztertu beharko nuke, zer eskaintzen duten eta zein baldintzatan. Prest nago aukera hori balantzan jarri eta merezi badu hara joateko". Arakistainek 48 urte ditu eta gaur egun Beasain taldeko entrenatzailea da. "Entrenatzaile batentzat 2.A mailako talde bat entenatzea beti da mesederako, hala ere, Beasainen oso gustura nagoela



esan behar dut". Arakistainek hainbat talde entrenatu izan ditu gaur arte: Sevillan, Utrera eta Los Palacios taldeak eta biekin lortu zuen igoera. Gero, zazpi urte egin zituen Haundian eta Eibarren beste bi. Azkenik, iaz hasi zen Beasainen eta aurtengoa bigarren denboraldia da.

Elgoibartarrak garaile Iruneko krosean

Carmen Perea eta Gorka Sánchez korrikalari elgoibartarrek joan den domekan Irunen izan zen kros herrikoa irabazi zuten bakoitzak bere kategorian. Bi gazte hauek Atlético San Sebastian taldearekin korritu zuten. Mintxeta Taldeko neska-mutilei dagokienean, alebinetan, Javier Ausinen 5. postua eta Ana Etxanizen bigarrena dira aipagarrienak eta infantiletan Mireia Huidobroren laugarrena.

Judoko dominak

Ibai Klubekoek emaitza ezin hobekak lortu zituzten Soraluzeko Judo txapelketan joan den zapatuan. Urrezkoa lortu zutenak: Erlantz Martínez, Xabier González, Aitor Gabilondo, Aitor Mugeza, Jon Ander Pascual, Josu Tellabide eta Aitor González. Zilarrezkoak zortzik lortu zuten eta brontzezkoa hamaikak.

Anboto



**INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK**

Iturriotz 11 - Tel. (943) 79 20 48 - ARRASATE - MONDRAGON

Etxebizitzak Mendaron!



KILIMON KOOPERATIBA: Laster eraikitzeko!!

12 etxebizitza, garajeak eta lokal komertzialak
(DENA KANPO ALDERA)




**HORMAETXE
KOOPERATIBA: osoa eta**



**TXIRRISTAKA
KOOPERATIBA: osoa eta
eraikitzen**

Gutxi gora-beherako prezioa:



Bideo-forumak Haizea Emakume Taldearekin

Haizea Taldeak lau bideo-forum saio antolatu ditu Kultur Etxean datorren asterako eta hurrengorako. Abenduaren 3an izango da lehena. Gueko 9,30etatik aurrera "Mr. Jones" pelikula eskainiko da, autoestimaren gaia lantzea baita helburua. Gai honi buruz Amagoia Zabala hezitzaileak jardungo du. Hurrengo bideo-foruma sexuaren ingurukoa da. Pili Ibazeta sexologian adituak hitz egingo du eta "El declive del imperio americano" filmea emango da. Arratsaldeko 3etatik 6ak arte luzatuko da saioa. Hurrengo bideo-forumetan "bikotearen arteko errutina eta emakumearen bakardadea" eta "enplegua"ren gaiak landuko dira. Eskainiko diren pelikulak, berriz, "Los puentes de Madison" (abenduak 11) eta "Las locas peripecias de un señor mama" (abenduak 13) izango dira.



Ekain-eko margoen erreprodukzioen maketa, argazki eta beste hainbat xehetasunekin erakusketa antolatu du Udalak. Ekaineko margoen birprodukzioa Mutriku eraikiko da, eta horixe da maketak erakusten duena, Mutriku eta inguruak nola geratuko diren. Dena den, Ekain II izenez bataiatu duten proiektu honek erreprodukzioak baino zerbait gehiago biltzen ditu. Ekaineko margoak ardatz bezala hartuta, Mutriku, Zestoa, Deba, Mendaro eta Elgoibarrera turismoa erakartzeko hainbat proiektu martxan jarriko dira. Maketa ikusteko azken eguna, bihar, hilak 30, izango da.



INMOBILIARI AGENTZIA

San Frantzisko 51 - 1D
Tel. 74 44 67 · ELGOIBAR

Aukera bikaina Elgoibarren!



Etxe berria erosiz gero, zaharra trukean onartzen dizugu.

Diferentziagatik, abantailazko kreditua lortuko duzu.
Badakizu, **KALITATEZKO ETXEBIZITZAK SANTA KLARAN.**

Zatoz guregana konpromezurik gabe,
AUKERA HANDIA daukagu **PREZIO ONEKO PISUETAN!**

Sallobenteko pinturak ermitan daude berriro

Jose Antonio Ardanza lehendakariak Sallobenteko ermitako pinturen inaugurazio ekitaldian parte hartu zuen asteazken goizean.


10,30ak aldera Guillermo Garate alkateak eta gairontzeko udal agintariak ongi-etorria egin zioten Udaletxean. Protokolo ekitaldian zehar makila bat

oparitu zioten eta jarraian Sallobente aldera abiatu ziren berritutako pinturak inauguratzeko asmoz.

11ak aldera iritsi zen agintari taldea Sallobenteko ermitara. Udal Txistularien doinuek lagunduta, agintariak ermitarantz abiatu ziren. Bertan inaugurazio eguneko plaka desestali zuen Ardanzak. Jarraian, pinturak jaso duten eraberritzeko prozesuaren berri eman zioten Artelekuko arduradunek bai lehendakariari bai ermitan bildu ziren herritar eta auzotar

mordoari. Pinturak nola aurkitu zituzten, berauek berritzeko erabilitako teknikak, pinturen ezaugarriak, estiloak, etab. Inaugurazio ekitaldiaren ostean luntxa eskaini zitzaizen agintariei. Elgoibarko bisitaldiaren ostean Mendarora abiatu zen lehendakaria.

Aldare gainean dagoen damero moduko pintura, hau da, Gotiko garaikoa, eta eskuineko horman dauden beste margoak, Neoklasikoak eta Errenazimendu garaikoak, interesa duen guztiak ikusteko moduan daude. Esan beharrekoa da, Sallobenteko margoak Gipuzkoan dauden Gotiko garaiko inportaneenetakoak direla.



Artelekuko adituen bitartez jaso zituzten azalpenak agintariak.

Elgoibarri buruzko bideoa salgai

Gazte Asanbladak ekitaldia sabotatu izana salatu du Blanka Salegi Kultur Teknikariak

Joan den astean aurkeztu zuten 650. urteurrena ospatzeko bideoa Kultur Etxean eskura daiteke 2.000 pta.ren truke. Blanka Salegi udal kultur teknikariaren esanetan, Elgoibarri buruzko dokumentu grafikoa edukitzeko asmotan enkargatu zion lan hau Udalak ikus-entzunezko produktora bati. 1.200.000 pta.ko kostua izan du eta Antxon Agirre etnografoak, Koldo Lizarralde elgoibartarraren laguntzaz egin du gidoia. Elgoibarraren bilakaera historikoa jasotzen du eta atalez atal, gure herria irudikatzen du, zertzelada laburren bitartez.

Dokumentua

Ekitaldi ezberdin asko egin beharrean gauza gutxi batzuen inguruan zentratu nahi izan ditu Udalak 650. urteurreneko ospakizunak. "Turismo topaketa eta feriak izaten direnean, Elgoibarri buruzko dokumentazioa bidali behar izaten dugu, horregatik nahi izan dugu bideo dexente bat egitea". Euskaraz eta erdarazko bertsiok daude, "lehen edizioan 150 kaleratu dira, erdiak euskaraz eta erdiak erdaraz". Asmoa artxiborako dokumentu bat sortzea izan bada ere, nahi duenak eskura dezake.

Sabotaia

Bideoaren aurkezpen



Argazkian, alkatea eta bideoaren gidoiariak.

egunean, Gazte Asanbladakoak pankarta batekin hitzaldi aretoan sartu eta ekitaldia eten egin zuten. Gazteek Udalak gatzetxearen inguruan duen jarrera salatu nahi izan zuten. Sabotai asmoa egon zela dio Blanka Salegik, "bideoa proiektatu behar genuen

entxufueek funtzionatzen ez zuten, automatikoa begiratu genuen eta argindarraren giltza pegamentuz beteta zegoen". Ekintza honen aurrean Kultur Etxeko argien automatikoa giltzez itxita edukitzeko erabakia hartu du Udalak.


Zeren zain zaude etxetik alde egiteko?

Badirudi gaur egungo gazteriak ez duela inolako presarik gurasoen etxetik ateratzeko. Orain urte batzuk 25 urte izan aurretik asko eta askok beraien bizitza propioari ekiten zioten. Sarritan entzun izan da oraingo gazteek gurasoekin bizi izateak dituen abantaila guztiak aprobetxatuz bizitza independente bat aldarrikatzen dutela. Eta egia da gero eta beranduagoa ateratzen direla gazteak gurasoen etxetik. Egoera ekonomikoa ez da, ez, onena. Langabezia batetik eta lanaren inestabilitatea bestetik, nahikoa arrazoi izan daitezke gaztea etxe bat erosi edo alokatzera ez ausartzeko. Halere, zeren zai daude 25-30 urte bitarteko gazteak etxetik alde egiteko?



ALICIA DOMINGUEZ 23 urte

“Ni etxean oso gustura nago. Gainera, gasolineran egiten dut lan. Ez da lan finko bat eta horrek asko eragiten du. Egia da batzuetan nere espazio propioa izateko gogoia izan eta pent-satu izan dudala etxe bat alokatzea baina gero beste gauza batzuk baloratzen dituzu. Gai ekonomikoa ezezik, nere kasuan lanaren ordutegia dago. Erreleboetan egiten dut lan eta oso nahasia izango litzateke horrelako bizimodu bat. Orain askoz erosoago bizi naiz. Momentuz ez daukat etxetik alde egiteko presarik, beharbada pare bat urte barru etxe bat erostera animatuko naiz”.



JON GALARRAGA 27 urte

“Oin arte ez dot planteau ere egin etxetik alde eixia. Ikasten egon naiz eta beste batzuekin alkilautako etxe batian bizi izan naiz. Astebukaeratan etortzen nitzan gurasuen etxera. Egia esan etxian oso ondo bizi naiz eta nahikua askatasun dakat. Ondiok behintzat ez naiz agobiau, nahiz eta aspaldixan etxetik kanpoko bizitza ein doten ikasle modura. Oin dala urte batzuk Ingalaterran egon nitzan eta han esan zien zela gaztiak 18 urtekin juten dian etxetik, beste mentalidade bat dake. Gure gurasuak oso protekzionistak dia eta normalian gehixo kostatzen jaku jutia. Arrazoi ekonomikuak pixu haundixa dake baina hala ere jendiak ezkondu arte ez dau erabaki hori hartzen”.



VIRGINIA BARRIADA 26 urte

“Ama ezkongabea naiz eta horrek bere mugak ditu. Beharbada ni bakarrik egongo banintz, nahiz eta lanean gehiegi ez irabazi, errazago animatuko nintzateke etxetik alde egitera. Bestalde, gurasoekin bizitzerakoan zenbait arazo txiki sortzen dira. Esate baterako, nire semearen heziketan gehiago sartzen dira. Momentu honetan langabezia nago eta ikastaroak egin behar ditudanean ordutegira egokitu behar naiz edo bestela gurasoek zaindu behar didate semea. Gurasoekin bizitzea askoz erosoagoa da une honetan. Dena dela, lana aurkituko banu, nere kontura jarriko nintzateke bizitzen”.



DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA ZERGA BULEGOA

Errosario, 34 - 1 · Tel. 74 42 83 · ELGOIBAR

- Aukera handia etxebizitzetan, prezio eta tamaina diferenteak.
- Pisu eraiki berriak Altzolan eta Mendaron.
- Eraikitzeke lurak San Pedro bailaran.
- Lokal komertzialak salmentan eta alogeran.
- Pabilioi industrialak Elgoibar, Itziar eta Mendaron.
- Garajeak Leku-Eder eta beste zona batzutan.

Salerosketak

- ❖ La Unión-eko akzioa salgai prezio erdian. ☎ **74 33 46**
- ❖ Skiak eta botak salgai. Dynastar 1,85ko skiak, Tyrolia loturkin. Botak (Nordica) 42-43. Egoera onean. ☎ **74 18 55** (Gauzez)
- ❖ Ford Fiesta batentzako ekipaiarako parrila saltzen dut prezio onean. Bai eta Ford Scort baterako gurpileko tapak ere. ☎ **74 27 93**
- ❖ BUTANOZKO SUKALDE ia berria saltzen dut estrenatu gabeko labe batekin. ☎ **74 10 09**
- ❖ MOTOR BAT erosiko nuke. ☎ **74 17 87**
- ❖ Bigarren eskuko BIBOLIN BAT saltzen dut. Oso egoera onean. ☎ **74 23 13**
- ❖ Errepiderako BIZIKLETA salgai. Merke eta egoera onean. ☎ **74 11 29**
- ❖ Bigarren eskuko lanparadun BI SOLARIUM-ohel salgai. Prezio eta egoera onean. ☎ **74 19 23 / 74 21 82**
- ❖ 103 cm-ko BEROGAILU elektriko bat saltzen da. ☎ **74 24 57**
- ❖ EHIZARAKO ESKOPETA salgai. ☎ **74 17 20**
- ❖ FORD SCORT R-S TURBO autoa saltzen dut. SS-AG. Oso egoera onean. ☎ **74 05 14/74 15 16**
- ❖ HIRU HUSKY SIBERIAR txarkurkume saltzen ditut. ☎ **74 41 45 Javi**
- ❖ ERREPIDEKO BIZIKLETA bat salgai. Kuadroaren tamaina 50. Campagnolo Mirage. 105 shimano kanbioak. 2 urte. 65.000 pta. ☎ **75 51 75 Javi**
- ❖ Golf GTI autoa saltzen dut, SS-AS. Oso egoera onean. ☎ **17 44 33**

Garajeak

- ❖ Arregitorren garaje itxi bat saltzen da. ☎ **74 12 53**
- ❖ Garajea salgai Karakolaren alboan, pista beltzean. Merke. ☎ **74 27 73**
- ❖ Auto txiki batentzako marradun garajea alokatzen dut. Batzoki azpian. ☎ **74 01 13**
- ❖ Garaje itxi bat salgai Arregitorren. ☎ **74 12 53** (Pilar)

Lana

- ❖ Neska edo emakume euskalduna behar da umeak eskolara eraman eta arratsaldeaz paseatzeko. Nahiago genuke Plaza ingurutik Sigmako zubira bitartean biziko balitz. ☎ **74 29 27**
- ❖ Neska bat behar dugu larunbat arratsaldetan taberna batean lan egiteko Elgoibarren. ☎ **74 37 71**
- ❖ Sukaldari bat behar dut Sorluzeko jatetxe baterako. ☎ **75 10 01** (Javi)
- ❖ Neska bat behar dugu etxeko lanak egiteko arratsaldeaz. ☎ **74 43 47** Sara
- ❖ Arratsaldeko 2,30etatik gaueko 9etara lan egiteko prest nago haurrak zaindu eta etxeko garbiketarako eginez. ☎ **74 30 90**
- ❖ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko prest nago goizez. ☎ **74 43 16** Marimar
- ❖ Etxeko lanak egin edo haurrak zainduko nituzke. Esperientzia daukat. ☎ **74 43 16** Arantxa
- ❖ Publizitate eta promozio gaien enpresak komisioz komertzialak behar ditu (egun osoz edo erdiz). ☎ **70 12 33**

Partikularrak

- ❖ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ **74 21 65** Javi
- ❖ Matematika finantzieroak ematen dituen norbait behar dugu. ☎ **74 13 18**
- ❖ Partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntza, DBH, Lehen zikloa eta ingelesa. ☎ **74 28 02**

Etxebizitzak

- ❖ Elgoibarren edo Eibarren pisua nahi dut alokatzeko. Maria Oliva ☎ **74 16 30** (lanorduetan)
- ❖ Altzolan egoera onean dagoen buhardilla bat salgai. Prezio ona. ☎ **74 37 41**
- ❖ Etxea salgai San Roken, Arregitorre 12. Erabili gabe. 3 logela, 2 bainu, jangela, sukaldea, ganbara eta garajea. ☎ **75 51 77** Tere

- ❖ Pisu salgai Erretxindi kalean. 4 gela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta gas natural berogailua ditu. ☎ **74 44 66** Arantxa
- ❖ Pisu bat behar dut alokatzeko Elgoibarren lehenbailehen. ☎ **909 22 36 27** Leire
- ❖ Pisu salgai Bernardo Ezenarro 5ean. Berogailua, 3 logela, jangela, sukaldea, komun bat eta 2 ganbara. ☎ **74 15 90**
- ❖ Deuston pisua betetzeko neska behar da. ☎ **74 33 38** Vanesa
- ❖ KONPARTITZEKO etxe bila nabil. ☎ **74 09 44**

Bestelakoak

- ❖ Zilarrezko eskumuturreko bat galdu nuen Kiroldegian eta Leku-Eder inguruan joan den larunbatean, hilak 23. ☎ **74 29 30**
- ❖ Herri Eskolako 6. mailakook eskerrak eman nahi dizkiegu Euskadiko Kutxa, Udala eta DEBEGESARI Salamancara bidaian lagundu zigutelako.

Agurrak

- ❖ Zorionak Marian gaur, hilak 29, 33 urte bete dituzulako. Zure lagun Tere, Nerea eta izeko Mari Luz-en partez.
- ❖ Trini eta Agustin. Horrelako "tres soles"ak ezin dituelako edonork egin. Zorionak. Aita eta ama.
- ❖ Hilaren 26an 4 urte bete zituen María Avilari zorionak guraso eta anaien partez.
- ❖ Zorionak Oscar Martín-i hilaren 27an 15 urte bete zituelako. Bere anaia Anderren partez.

Datorren astetik aurrera ZORION AGURREN ATAL BERRI BATI ekingo diogu. Norbait ARGAZKI ETA GUZTI zoriondu nahi baduzu BARREnera ekarri ahalik eta bizkorren.

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

- Anbulategia:
- Larrialdiak.....461111
 - Txanda hartzeko.....743354
 - Planning-a742950
 - Alkoholiko Anonimoak..740385
 - D.Y.A (anbulantzia) ..464622
 - Gurutze Gorria.....743864
 - Mendaroko Ospitalea756264
 - Odol Emaileak743936

GARRIAOK

- Eusko Trenbideak.....740442
- PESA (Eibar).....102131
- Taxi geltokia.....740898

UDALA

- Euskara Zerbitzua.....744366
- Udal Kirol Patronatua744415
- Kultura Zerbitzua742158
- Mendaroko Udala756100
- Ongizate zerbitzua...741008
- Udaletxea741050
- Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

- Caritas740142
- Elgoibarko Izarra.....741626
- Kiroldegia74 4415
- Kontsumo Bulegoa ...743088
- Liburutegia743525
- Musika Eskola742145
- Mintxeta744315
- Parrokia740842
- Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

- San Lazaro Egoitza...740296
- Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

- Haur Eskola.....74 21 41
- Herri Eskola74 08 79
- I.M.H.74 41 32
- Institutua74 02 67
- Ikastola74 44 41
- L.H.I.....74 44 80
- Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

- BARREN.....74 41 12
- El Diario Vasco74 40 73
- El Correo Español...74 10 82
- Egin.....10 84 21
- Zazpiki irratia74 34 74

29 OSTIRALA

19,00 PRESOAK EUSKALERRIRATZEAREN ALDEKO AKANPADA

✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Amnistiaren Aldeko Batzordeak
Abenduaren 1era arte

22,15 ZINEA
"Belleza robada"

30 LARUNBATA

16,00 MUS TXAPELKETA

Bazkideentzat
✓ La Unión elkartearen

16,30 ZINEA
"Hackers piratas informáticos"

19,30-22,15 ZINEA
"Belleza robada"

1 IGANDEA

9,00 HIESaren NAZIOARTEKO EGUNA

Mahai informatiboak
Antolatzailea: Errotatxo

13,00 HIESaren NAZIOARTEKO EGUNA

Kontzentrazioa
✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Errotatxo

16,30 XIV. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA

"El tigre Pedro"
Taldea: Baniailuka-Polonia
Herriko Antzokian

19,00 EUSKAL PRESOEN ALDEKO MANIFESTAZIOA

Plaza Handian
Antolatzailea: Amnistiaren Aldeko Batzordea

19,30-22,15 ZINEA
"Belleza robada"

20,00 NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETAREN SARI BANAKETA

✓ Kultur Etxean
Antolatzaileak: Xake Federazioa
eta Udal Kirol Patronatua

2 ASTELEHENA

22,15 ZINEA
"Belleza robada"

3 ASTEARTEA

19,00 HITZALDIA

Gaia: Etxeko landareak eta loreak
Hizlaria: Jagoba Rekondo
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

21,30 BIDEO FORUM-a

"Mr. Jones"
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea

4 ASTEAZKENA

19,00 HITZALDIA

Gaia: Presoen euskalherriratzea
Hizlariak: Tomas Carrera, preso
izandakoa
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Amnistiaren Aldeko Batzordeak

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
30, larunbata:	Yudego	Yudego
1, igandea:	Yudego	Yudego
2, astelehena:	Bidasolo	Zabaleta
3, asteartea:	Bidasolo	Zabaleta
4, asteazkena:	Bidasolo	Zabaleta
5, osteguna:	Bidasolo	Zabaleta
6, ostirala:	Etxeberria	Escala

OKINDEGIA:

1, igandea: ZABALETA

5 OSTEGUNA

15,00 BIDEO FORUMA

Filmea: "El declive del imperio americano"
Hizlaria: Pili Ibazeta sexologian aditua
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea

19,00 HITZALDIA ETA DIAPOSITIBA SAIOA

650. urteurreneko ekitaldia
Gaia: Artzantza tradizionala
Hizlaria: Josetxo Zufiaur
etnografoa
✓ Kultur Etxean

ZineEa

Belleza robada

Zuzendaria: Bernardo Bertolucci.
Antzezleak: Jeremy Irons, Liv Tyler, Jean Marais.

Neska amerikar gazte batek, bere amaren heriotzaren ostean, Toscana-ra bidaia egingo du uda pasatzeko asmoz. Bere gurasoen lagunaren etxean ostatu emango diote. Toscanara joateko benetako arrazoia, ordea, lagun hauen auzolagun batekin izandako maitasun istorioa berreskuratzea da. Maitasun hori ez da berak espero duena eta amak egindako poema batean, bere aita, ez dela benetako aita deskubrituko du.



IOSU Bitxidenda

San Bartolome, 4 - Tel. 74 40 48 - ELGOIBAR



5.000 pta.ko gastua egiten duzun
bakoitzean BI OPARI ZORAGARRI
hauen zozketan
parte hartuko duzu.

Ez galdu Gabon opari
hauek etxera eramateko
aukera!

Zozketa urtarrilaren 7an
egingo dugu.

Gabonetako zozketa

ASTIGARRAGA garajea

San Frantzisko, 53 - Tel. 74 01 86

*Hasi Gabonetako
oparietan pentsatzen
Zatoz guregana!*





ZENDAT BURU
Mendi
Agirre gomestortza

ERRAPORTAUA
Etxe bitartean

KALE INKESTA
Etxe erosi
nisi alokatu?

UDALETXETIK
Pedro Muguruza eta
Iñaki

KIRGLA
Gibon ebria
Iturrialdeko
Txepi eta

KULTURA
Selloren hitza
pintura
inaugurazioa

BARREN

E L O I T A R I N O A S T E R N A T A

Abenduaren 5ean tentazioan eroniko zara